FERNANDO PRADO AYUSO, CMF
DONOSTIAKO GOTZAINA
OBISPO DE SAN SEBASTIÁN

DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKO ELIZTAR GUZTIOI

Senide maiteok Kristogan:

Urriko hilabete honetan, Sinodoaren Batzarra egiten ari da Eliza osoa Erroman, honako goiburu hau duelarik: “Sinodo-erako Elizaren alde: elkartasuna, partaidetza, misioa”. Jauna deika ari zaigu gure fedea indarberritzera eta bidean elkarrekin bat eginik doan Jainkoaren Herri gareneko kontzientziaz eta nortasunaz jabetzera. Dei honetan sakontzeko gonbidapena egiten digu Elizak. Eliza bere izatez sinodala dela jabetzeko antolatua den Sinodo honen prozesua luzea izaten ari da eta oso landua. Hasieratik ari da gure elizbarrutia parte hartzen, eliztar guztiok batera ari dugun gogoeta honetan.

Krisiak eta gatazkak astindua dagoen munduaren erdian ari gara prozesu sinodal hau egiten; lan honek berak eraman behar gaitu bakearen eta justiziaren alde lan egitera, Espiritu Santuaren fruituak onartzeko bihotza irekia dugula. Hauxe oroitarazten digu *Instrumentum Laboris* deritzan lanerako dokumentuak, Elizako esparru eta arlo ezberdinetan egindako gogoetak biltzen ditu dokumentuak. Hauxe dute gidari Sinodoko Batzarrean. Dokumentu horretan esana dagoenez, sinodaltasuna konbertsiorako bidetzat hartzera deituak gaude, bai gu, bai Ebanjelioaren argiaren behar larrian dagoen mundua.

Gipuzkoako kristau-elkarte osoari zuzentzen diot, beraz, gutun hau, Erroman halako gogoeta eta bereizmen-lana ari duten garai honetan otoitz egin dezagun elkar harturik, Jaunari hau eskatuz: isur dezala bere grazia Sinodo honen gainera, eta han gure izenean ari diren parte-hartzaile guztien gainera. Eta elkarketa horren ondorioz, Eliza gero eta ebanjelikoago eta misiolariago izatera iritsi dadila.

Gure elkarte guztiak, parrokiak, mugimenduak eta otoitz-taldeak era berezian otoitz egitera gonbidatzen ditut, prozesu horretan *cum Petro eta sub Petro* lanean ari diren gotzain, apaiz, pertsona sagaratu eta laikoen alde. Argi diezaiela Espirituak adimena eta bihotza, sinodo-erako Eliza izateko Jaunak zein bide jartzen digun ikusi ahal izan dezaten. Eskaera hau egiten dizuet: eguneroko eta iganderoko Eukaristietan eskari bereziak egin ditzazuela eta, orobat, asmo horrekin otoitzaldi bereziak ere antola ditzazuela parrokietan nahiz taldeetan, ongi iruditzen bazaizue eta egokierarik baldin baduzue.

Andre Mariak, Arantzazuko Amak, egin dezala otoitz gure alde eta lagun izan dezagula munduan bizi nahi dugun elkartasun, partaidetza eta misio zaletasun gero eta handiagoa lortzeko bidean.

Otoitzean zuekin bat eginik. *In Corde Matris*,

**✠ Fernando Prado Ayuso, CMF**
*Donostiako Gotzaina*

FERNANDO PRADO AYUSO, CMF
DONOSTIAKO GOTZAINA
OBISPO DE SAN SEBASTIÁN

# A TODA LA DIÓCESIS DE SAN SEBASTIÁN

Queridos hermanos y hermanas en Cristo,

Durante este mes de octubre, la Iglesia Universal se encuentra celebrando la Asamblea del Sínodo bajo el lema: "Por una Iglesia sinodal: comunión, participación, misión". Una invitación a profundizar en la llamada que el Señor nos hace a renovar nuestra fe y a redescubrir nuestra identidad como Pueblo de Dios que camina unido. El proceso de este Sínodo sobre la propia sinodalidad ha sido largo y muy trabajado. Desde nuestra diócesis hemos participado activamente en esta reflexión coral y universal desde el comienzo.

Este proceso sinodal, que tiene lugar en medio de un mundo marcado por crisis y conflictos, nos llama a ser artesanos de la paz y la justicia, y a abrir nuestros corazones para acoger los frutos del Espíritu Santo. El *Instrumentum Laboris* o documento de trabajo que está utilizando la Asamblea sinodal, y que recoge la reflexión elaborada hasta ahora en múltiples y diversos ámbitos de Iglesia, nos recuerda la necesidad de una mayor escucha, comunión y discernimiento; a su vez, nos invita a vivir la sinodalidad como un camino de conversión, no solo para nosotros mismos, sino también para el mundo que tanto necesita de la luz del Evangelio.

Me dirijo, pues, a toda la comunidad cristiana de Gipuzkoa, para que, en este tiempo de discernimiento verdaderamente eclesial que está teniendo lugar en Roma, unamos nuestras oraciones pidiendo al Señor que derrame su gracia sobre este Sínodo, sobre sus participantes, que a todos nos representan, y que los frutos de este encuentro puedan llevarnos a una Iglesia siempre más evangélica y misionera.

Invito a todas nuestras comunidades, parroquias, movimientos y grupos de oración a que, de manera especial, recemos por los obispos, sacerdotes, consagrados y laicos que activamente participan, *cum Petro et sub Petro*, en este proceso. Que el Espíritu Santo ilumine sus corazones y mentes para que puedan discernir los caminos que el Señor nos invita a recorrer como Iglesia sinodal. Os pido que se incluyan oraciones especiales por esta intención en las preces de las Eucaristías diarias y dominicales. Igualmente, invito a que las parroquias o grupos que lo estimen posible y oportuno, a realizar algún acto oracional específico en este sentido.

Que María, nuestra Madre de Arantzazu, interceda por nosotros y nos acompañe en este camino hacia una mayor comunión, participación y misión en el mundo.

En comunión de oraciones. *In Corde Matris,*

✠ **Fernando Prado Ayuso, CMF**
*Obispo de San Sebastián*